

Sopitak eskatu tertzioz

BEHIN eta berriro sujeritu didate idatz dezadan editorial bat Pyrenaican erreskate-taldeei egiten zaizkien deiengatik gertatzen den zarrastelkeriari buruz. Sarritan, dei horiek benetako beharriaz gabe egiten dira eta telefono mugigarriaren erabileraren gehikuntza esponentzialagatik gertatzen dira. Ba, idaztera noa editoriala eta hori, bi arrazoi hauengatik: lehena, eskatu didan pertsonari ezin diodalako ezetz esan. Bigarren arrazoa geroxeago azalduko dut. Beraz, azkeneraino irakurri beharko duzue horren berririk jakin nahi baduzue.

Gaia bere arduradunekin kontsultatu ondoren, ezusteko bat izan dut. SOS-DEIARI menditik egiten zaizkion laguntza-deien arrazoiak hauexek izaten dira: istripuak, pertsonak desagertu egin direlako eta galdu egin diren mendizaleek beren mugigarrietatik egiten dituzten deiak. Hirugarren arrazoi honek arduratzen gaitu. Pentsa daiteke ezen mugigarriaren eskuragarritasunak eta erabilera errezak gehiegikeria ondorioztatu zezaketela eta gehiegizko dei-kopuruak zerbitzua bera kolapsatu.

Ba ez. Beren eragin negatiboak erreskate-zerbitzuetan nimiñoak dira. Deien lehen harrera-mailak sailkatu egiten du deia eta dagokion lekura bideratu. Estualdietan, galdu egin delako norbait eta berandu egiten delako, gauzak konpondu egiten dira telefonoaz ematen diren lasaitasuneko aholkuak direla medio eta mendizaleari egoeratik bere kabuz ateratzeko ematen zaizkion argibideei esker. (Esan beharra dago ezen arazorik handiena, galdu den mendizaleak bere egoera

azaltzeko duen zailtasuna izaten dela. Eta horretarako balio duen aholku bat, ez galtzen saiatzen denarentzat, - batzuk teknikasun lar dela esango duten arren - zera da: norberak bere GPS aparailua erosi dezan, zeina gaur egun hain garestia ez den, erabiltzeko erraza den eta erabat onuragarria, erabiltzailearen kokapena inolako zalantzarik gabe seinalatzen baitu).

Ekin egiten dut, beraz. Mugigarria, oro har, estualdi askotarako aterabide erraza izaten da eta mendian arazo larri bat konpontzeko erarik sinpleena izan daiteke. Hau da, mugigarria ez da arazoa, baizik eta guztiz alderantziz. Baina pena merezi zuen galdera honi erantzuteak, zeren garrantzi handiko gai baten parte ba: mendiko erreskateena eta istripuen ostean dauden erantzukizun zibil eta penaleko ondorioena.

Eta hain garrantzitsua da kontu hau ezen Donostian irailerako EMFak eta UPV/EHUak antolatu duten "Mendizaletasun berria gaurko gizartera moldatua" izeneko udako kurtsuan eztabaidatuko diren gaietarik lehenengoetarikoa izango den (aldizkari honen ale hau argitaratzen denerako eztabaidaturik egongo da jadanik). Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Larrialdietarako Laguntzako Zuzendaritzari eskatu egingo diogu, mendizale guztiei eskaintzeko asmoaz, ezen EMFaren 75 urteurrenean ospatu ziren ekitaldietan aurkeztu zuen txostena gaurkotu egin dezan. Izan liteke, baita ere, zuzenbide-arloan adituak diren batzuekin EMF-an antolatu nahi den lan-taldeak arlo hau bere zereginen artean lehen helburu bezala izan dezan.

Pedir sopitas a tiempo

ME han sugerido repetidamente que escriba un editorial en Pyrenaica sobre el tema del despilfarro que se produce por el abuso de las llamadas a los grupos de rescate, llamadas que con frecuencia se producen sin verdadera necesidad y que están provocadas por el exponencial crecimiento del uso del teléfono móvil. Pues bien, lo voy a escribir por dos motivos: el primero es porque no puedo negarme a la persona que me lo ha pedido. El segundo motivo lo explicaré luego. Así que habrá que leer hasta el final para enterarse.

Después de consultar el tema con los responsables, me he encontrado con una sorpresa. Los motivos de las llamadas de socorro a SOS-DEIA en el monte se deben a accidentes, desaparición de personas y llamadas desde el móvil de montañeros extraviados. Este tercer caso es el que nos ocupa. Se puede pensar que la facilidad de disposición y manejo del móvil iba a ser fuente de abusos y que el excesivo número de llamadas podría incluso colapsar el servicio.

Pues no. Sus efectos negativos sobre los servicios de rescate son mínimos. El primer nivel de recepción de los avisos clasifica la llamada y la deriva a la instancia correspondiente. Y los casos de apuro, por extravío y porque se hace tarde, se resuelven la mayoría de las veces mediante instrucciones telefónicas de serenidad y ayuda para salir por sus propios medios. (Por cierto, el problema mayor suele ser la dificultad de explicarse del extraviado. Y una

recomendación al efecto, para el que esté empeñado en no perderse, -algunos dirán que es ya demasiado tecnicismo- es la adquisición por los particulares de un aparato de GPS, que hoy en día ya no son tan caros, son sencillos de usar y son extremadamente útiles, al indicar sin ninguna duda la ubicación del que lo usa).

Insisto, entonces. El móvil es en términos generales la solución fácil ante muchos apuros y en el monte puede ser la forma más sencilla de resolver una situación de problema grave. Es decir, el móvil no es un problema sino todo lo contrario. Pero valía la pena responder a esta pregunta, porque forma parte de un tema de alta importancia como es el de los rescates en montaña y las consecuencias de responsabilidad civil y penal que hay detrás de los accidentes.

Es tan importante que va a constituir el primero de los temas que se van a debatir (lo habrá sido ya cuando salga este número de la revista) en el curso de verano: "Un nuevo montañismo adaptado a la sociedad actual", que han organizado la EMF y la UPV/EHU este septiembre en Donostia. Además vamos a pedir a la Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco, para ofrecerlo a todos los montañeros, que actualice el informe que presentó durante los actos del 75 aniversario de la EMF. E incluso podría ser que el grupo de trabajo de expertos jurídicos, que se pretende crear en la Federación, lo tomase como uno de sus primeros objetivos de tarea.

Txomin Uriarte